

**GETXO.** Aurkezpen jaia hilaren 27an da, Berangoko Purgatorioan



VERONICA MUNOZ

Eskualdeko 11 musikagileren beharrak batu dabez disko barrian; tartean, Borja Serra algortarraren bat.

## Musika elektronikoaren bildumea kaleratu dau 'UK'-k

Eskualdeko 11 musikagileren beharrak batu dabez disko barrian

Veronica Muñoz |

Uribe Kostako Aldizkariak (*UK*-k) eskualdeko musika elektroniko egileen kantak batu dauz disko baten, eta beharra argitaratu dau oraintsu. Igaz hasitakoari jarraituta, Gabonetan kaleratu dabe disko barria. Hain zuzen be, igaz Bittor Egurrolaren kantak batzen dauzan diskoa kaleratu eben sasoi honetan.

Disko barriari *Ukproiekt01* deitu deusie. Izan be, disko hori proiektu barri baten abiapuntua baino ez da, proiektuaren arduradunek azaldu dabenez. Aurrerantzean, *UK* aldizkaria hilero kaleratzeaz aparte, bestelako produktuak (liburuak, diskoak eta abar) argitaratzen hasteko asmoa daukielako.

Diskoak ordubete iraute

dau, eta guztira hamaika musikagilek hartu dabe parte proiektu horretan. Estilo ezberdinak jorratzen dabez taldeetako kantak batu dabez diskoan, baina beti musika elektronikoa abiapuntutzat hartuta.

### Eskualdeko musikagileak

Musikagile gehienak getxotarrak dira, eta eskualdeko beste herrietako batzuk be badagoz. Honek dira *Ukproiekt01* izeneko egitasmo barrian parte hartu dabene egileak: Isr@, Guillermo Balzola, Virginia Elorduy, Juan Ballaz, Koko Navajas, Lion Pilon, Aitzol Unzuurrungaza, Gaizka Pereda, Luis A. Ruiz, Javier Torre eta Borja Serra.

Diskoaren masterizazioa Gasteizko Canton de la soledad Records disketxean egin dabe,

eta diseinu beharrak egiteko ardua, barriz, Eider Corrales hartu dau.

Atzo aurkeztu eben disko barria komunikabideen aurrean, Bilboko Kafe Antzokian eginiko prentsaurrekoan. Horrezaz ganera, abenduaren 27an, datorren egunean aurkeztuko dabe jente aurrean, Berangoko Purgatorio tabernan. Aurkezpen jaialdia iluntzeko 20:00etan hasiko da, eta bertan diskoa eskuratzeko ereia eukiko dabe musika elektronikoaren zaleek; prezio onean ganera, 1.500 pezetan.

Inguruko musika dendetan be laster salduko dabe *UKproiekt01* diskoa. 2.200 pezetan salduko dabe, hain zuzen be. Telefono honetara deituta be eskatu leike: 94 491 13 37.

## Algortan eta Areetan egongo da Olentzeroa umeen zain, gaur hasi eta astelehenera arte

V.M. |

Olentzeroak ume getxotar guztien eskaerak jasoko dauz, gaur hasi eta datorren astelehenera arte, Algorta eta Areetako metro geltokiko plazetan. Betiko moduan, Getxoko Antzerki Eskoleak eta dendarien alkarteak antolatu dabe.

Urtero ohiturea danez, auzo bakotxan ekitaldi bereziak izango dira, Olentzeroaren inguruan. Algortan, esate bate-

rako, pertsonajeak eta bere lagun guztiek eguerdiko 12:00etan hasiko dabe ibilbidea, auzoko kaleetan. San Nikolas plazan amaituko da, eta bertan txistulariak, eta bertolariak egongo dira, txalaparta joko dabe eta bertoko abesbatzek abestuko dabe. Areetan be eguerdian hasiko dira ekitaldiak. Andra Marin, barriz, Olentzeroa arrastian ibiliko da kaleetan, eta probalekutik urtengo dau.

Horrezaz ganera, Getxoko Antzerki Eskoleak Mari domingi izeneko antzezlan agertuko dau udalerriko zenbait lekutan, datorren astelehenean. Hiru saio izango dira.

Getxoko Dendarien Alkartaren eskutik, beste alde batek, milako gozoki bananduko dabez, eta txartelak emongo deusiez getxotarrei zozketa baten parte hartu daien. Bidaia zotz egingo dabe, Kanariar Irletara.

**SOPELA.** Hilero bananduko dabe etxeetan

## Gaur kaleratuko dabe 'Sopelana Gurea' udal aldizkariaren lehen alea

V.M. |

*Sopelana Gurea*, Udalak argitaratu dauen aldizkari barriaren lehenengo zenbakia kaleratuko dabe gaur. Hilean behin urtengo dau aldizkari barriak. Udalerriaren ganeko informazio orokorra emongo deusie, bertan, herritarrei: udaletxean hartutako erabakiak, kultur eta kirol arloko gaiak, era guztietako proiektuen barri Sopelan...

Udalerriko etxeetan bananduko dabe aldizkari barria, eta horretarako 5.000 ale aterako dabez. Beste 5.000 ale inguru, ganera, metro geltokian, herriko dendetan eta beste hainbat lekutan

lagako dabez, gura dauenak hartu daizan.

### Informatika ikastaroak Zipiriñen

Beste alde batetik, datorren urterako informatikearen ganeko oinarritzko ikastaroak antolatu dauz Udalak, Zipiriñeko gurasoen alkarteagaz eginiko beharrari esker.

Datorren urtariletik aurrera eskainiko dabez ikastaroak. Helduentzako ikastaroa da, eta matrikulea egiteko, edo ikastaroen ganeko informazio gehiago jasoteko, gura dauena Zipiriñeko Gurasoen Alkarteko lokaletatik igaro leiteke, eguaztetan eta eguaztetan.

### LAGUNAREN

BERANGO

**Ruper Ordorikak Berangoko pelotalekuan joko dau gaur, iluntzeko 22:00etan hasita**

Ruper Ordorika oñatiarrak kontzertua eskainiko dau iluntzean Berangan, 22:00etatik aurrera. Ordorikak orain dala gitxi kaleratu dauen *Hurrengo goizean* izeneko diskoaren kantak, eta betiko abesti ezagunak be entzuteko aukerea eukiko dau publikoak, herriko probalekuan. Uribe Kostako Euskera Zerbitzuak antolatu dau kontzertu hori, eta sarrerak salgai dagoz Berangoko kultur etxean.

GETXO

**Gaur zabalduko dabe epea, Areetako Konekta Zaitzez gune barrian izango diran ikastaroetan izena emoteko**

Gaur zabalduko dabe Areetako Konekta Zaitzez gune barrian oinarritzko informatika ikastaroetan parte hartzeko epea. Kultur etxeko laugarren solairuan zabalduko dabe zentroa, urtarilean. Ikastaroak doan izango dira, eta 18 urtetik gorago pertsonaiek zuzenduta dagoz. Internet eta posta elektronikoa zelan erabili irakatsiko dabe ikastaro horreetan, besteak beste, eta inskripzioak zentroan egin leitekez, goizetan.

GETXO

**Arrastion zabalduko dabe Getxolandia, Areetako plazan**

Gaur goizean inaugurauko dabe Getxolandia, Gabonetako umeentzako parkea, Areetako metro geltokiaren ondoan. Arrastian, 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta urtarilaren 5era bitartean goizean eta arrastion zabalduko dabe. Gune bi ipini dabez, metro geltokiko plazan umeentzat eta ondoan dagoen aparkalekuan gazteentzat. Sarrerea 300 eta 400 pezetan dago hurrenez hurren, eta Gabonetako parkean sei aldiz sartzeko balio izango dau.

### AGENDEA

GETXO

**Zinea:** *Pleno verano*, Getxo Antzokian, 22:00etatik aurrera. Sarrerea 350 pezetan (2,10 euro) dago. Proiektzioaren ostean, foruma egingo dabe.

ZAMUDIO

**Zinea:** *El libro de la selva* izeneko filma botako dabe 19:30ean, umeentzat. Iluntzeko 21:00etatik aurrera *El planeta rojo* botako dabe, helduentzat. Zamudio Dorretxean.

MUNGIA

**Zinea:** *Los Otros*, Torrebillela Aretan, 19:30ean eta 22:30ean. Sarrerea 550 pezetan (3,31 euro) dago. **Marijesiak:** Gernikako Marijesiak, iluntzeko 21:30etik aurrera, Mugire Txokoa. Sarrerea doan da.